

87. zk.

2000ko martxoa



Gasteizko eskaldunon aldezkaria

zinema. calparsoro




jesus
obrero
euskararen
alde



2000 martxoak 8

GEU... kulturari 3/1 euskarari



Arabako Foru Aldundia
ZER TAN DABIL?

KULTURA, euskara... STOP



silueq|o

Liburudenda

Benito Ginea kalea, 2 • GASTEIZ

Tel/Faxa: 945 25 75 14



Adi sexualitate atalari. EMAIZE.

hilabete honetan



12... 15. orr.
Zukua
Asfalto-ko aurkezpena
Gasteizen. Calparsoro.



18... 19. orr.
Jesus Obrero.
Txirrindularitza
martxa



• atalak •

4. orr. zizka-mizkak - 7. orr.
hamaika kontu - 10 orr. nik uste!
17. orr. Kozkortuz - 32. orr. Zeuk
aukeratu! - 34. orr. Komikia

21... 23. orr.
Arabako
Foru
Aldundia
Kulturari
stop.



16. orr. Begira.
Kuartangoko altxorak.

24. orr. Publizitatea
euskaraz.

28. orr. Gure gizartean
nagusi den sexualitateari
buruzko kontzeptutik ihes
eginez (Emaize).

29. orr. Euskaltasunean
lagun. Jon Fdz. Pz. de
Mendiguren.

30. orr. Agur Inaxio.

GEU ALDIZKARIA LAGUNTZA ESKE ORAINDIK

Martxoko alea itxita eta Foru Aldunditik berririk ez. Hortaz, aldaketarik ez momentuz dirulaguntzen inguruan. Ez dakigu aurrerantzean zer gertatuko den, baina gu ezin gaitezke arriskatu eta momentuz ez dugun 1.000.000 hori lortzeko dihardugu lanean... Gure partetik gure eskuetan dagoen guztia egiten ari gara egoera hau menperatzeko... Halere, ez da nahikoa eta aldi berean "LAGUNTZA BOTE" batosatzen ari gara gerta daitekeenerako, eta berau

osatzeko zuengana jotzen dugu, ahal duzuen neurrian lagun diezaguzuen. Aurrerago gauzak aldatu eta konpontzen direla... (ea hala den), primeran!, zuek guztioi esker osatutako "bote" hori oso lagungarria izango baita bai inprentako aspaldiko zorra murriztu bai aldizkariaren hobekuntzetan inbertitzeko.

**Hauxe da GEU ALDIZKARIAREN
KONTU KORRONTEAREN ZENBAKIA:
-VITAL KUTXA-
2097 0167 83 0008061533**

***ALDI BEREAN, ESKERTU NAHI DUGU EGUNOTAN HAINBAT HARPIDEDUN
ETA LAGUNEN ESKUTIK JASOTZEN ARI GAREN BABESA: LAGUNTZA
ESKAINIZ, ANIMOAK EMANEZ ETA "BAKAR 1" KANPAINARI JARRAITUZ
HARPIDEDUN BERRIAK EGINEZ. MILA ESKER ZUEI!!!**



GEU Elkartearen ekimenez egina

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate.

Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.

Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron.

Argazkiak: Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B.

Maketa: DAV '00. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola.

Irudigilea: Mikel Valverde. **Kolaboratzaileak:** Amaia

Zaldua, Maider Perez eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea:**

Edurne Begiristain. **Banaketa arduraduna:** Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Ale Kopurua: 2.500 - LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



zenbakia

bakar 1

"Bakar 1" du izena Geu aldizkariak abian jarri berri duen harpidetza kanpainak... Kanpainaren helburua: Foru Aldundiaren 1.000.000ko dirulaguntza (etenda momentuz) ordezkatzeta... **HARPIDEDUNAK BEHAR DITUGU...** Eta zuetako bakoitzak harpidedun "bakar 1" eginez gero...= oztopoak gainditu, aurrera joan... Hau da gure erronka, egunetik egunera harpidedun kopurua handitzea... **Eskerrik asko harpidedun, harpidedun berri bat egiteagatik!**

Aldizkariaren kontrazalean dagoen **HARPIDETZA FITXA** bete (**harpidedun berria egin duen harpidedunaren izena** ere zehaztuz) eta gure helbidera bidali.

ikusi-makusi



EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN OIHARTZUNA GASTEIZKO APAIZTEGIRA
Otsailaren 20tik 25era bitartean Euskal Herriko hainbat apaiz barautan izan ziren Gasteizko apaiztegiean euskal presoek eskubideen errespetuaren alde.

Argazkia: Edorta Sanz.

araba bixotzian



— Puente Alto —

Mikel Valverde 2000

izenak

MARIA TERESA URRESTARAZUK GEU SARIA JASO DU

Geu elkarteak euskaltzale gasteiztarrek urteetan zehar egindako lanari aitortpen eta errekonozimendu publikoa ematen dien GEU SARIA Maria Teresa Urrestarazu Landazabal 92 urteko gasteiztarrek jaso du. Sari ematea otsailaren 26an Principal Antzokian egin zen BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA izeneko jaialdiaren amaieran..

Aurten lehengo aldiz ematen den GEU SARIA merezimendu osoz jaso du Maria Teresa Urrestarazuk. Izan ere, gerra baino lehen euskara ikasten hasi baldin bazen, gerra ondoko unerik zailenetan erabat euskaldundu zuen bere burua Gasteizen. Garai haietan ere euskalgintzan erabat murgildu zen bere neba Andoni Urrestarazu "Umandi"rekin batera. Bion etxea urte haietan Gasteizko euskaltzaleen erreferentzia puntu garrantzitsua izan zen. Gainera, Maria Teresak laguntza aparta eman zion "Umandiri" honek egindako Gramatika taxutzerakoan eta euskararen inguruko beste hainbat azterlanetan. Hain zuzen ere, gaur egun bukatu berriak ditu nebak utzitako lanak hiztegi berri bat sortzeko.

Laburbilduz, Maria Teresa Urrestarazu garai bateko euskaltzale gasteiztarrekin lotzen gaituen katebegia da. Berak euskalgintzan jorratu duen bide luze eta oparoaz jabetuta, errezago konturatzen gara katea ez dela eten. Horregatik guztiagatik errekonozimendu osoa zor genion gasteiztarrok ia itzalean euskara suspertzen aritu den emakume arabar honi. Bedi GEU SARIA Maria Teresaren lan emankor horren esker oneko aitortpena.

EUSKARA ARDATZ DUEN BIZITZA OPAROA

☞ Maria Teresak 92 urte ditu. Araian jaioa. Aita gasteiztarra eta ama Araiakoa. Lau anaia-arreben arteko hirugarrena da; momentu honetan bizi den bakarra.

☞ Ikasketak, Murgian eta Gasteizen burutu zituen; Magisteritza, Sagrado Corazón Ikastetxean.

☞ Lan egin zuen irakasle: Aulestian, Gasteizko "Ikasleen Eskola" (Escuela de Aprendices), Nazareth Ikastetxean eta Olabide Ikastolan jubilatuta arte.

☞ 36.eko guda baino lehenago Aulestian, irakasle zebilen bitartean, euskara -bizkaiera- ikasten hasi zen; geroztik, Andoni -Umandi- nebarekin sakondu zuelarik.

☞ Oso lotura handia izan du beti bere nebarekin, nahiz eta Umandi espetxean egon, eta gero Parisen eta Baionan, erbestean, Eusko Jaurilaritzarentzat lan egiten.

☞ Euzkera Zaintza-rekin eta "erriko euzkerarekin" bat egiten du.

naturaren isladak

Arabako Natur Institutua Araba eta bere inguruko Ondare Naturala aztertzea, dibulgatzea eta konserbatzea helburu nagusizat dituen elkarte zientifiko eta kulturala da. (tfnoa: 945 24 66 06)



POSTA ELEKTRONIKOAK EKARRIA... GURE ABIZENAK, GURE SENTIMENDUAK

Duela ez asko interneteko euskal abizenen buruzko foro batean sartu nintzen, ia kasualitatez. Bertan "euskal diaspora" delakoarekin egin nuen topo, hegoamerikarrak ziren gehienak, beren euskal abizenen buruz galdezka ari ziren guztiak. Argentinako Ricardo Alza bere abizen bereko euskaldunen bila ari zen, Mexiko-ko Carlos, Bengoechea abizenarekin zebilen kezkatutik, Venezuelako Rodolfo Irizar bere zuhaitz genealogikoaren atzetik zebilen. Identitate grina nabaria zen guztietan. Identitatearen arazoak larria izan behar duela emigranteen kasuan okurritu zitzaidan orduan, sustraietatik, jatorritik hainbeste kilometrotara. Abizen hori baita berez pertsonen familia-ko jatorri-kidetasuna adierazten duen izena, nondik gatozen esaten diguna.

Baina hitz bat besterik ez da, eta askotan hitz xume horrek bere esanahia baino garrantzi handiagoa hartzen du. Euskaldunen kasuan, adierazgarria da oso abizenak duen autonomia propioa. Espainiar sentitzen diren herritarrek beren euskal abizenaren grafia aldatzen saiatzen dira, espainiar kutsua har dezan, erdal abizena duten euskaldun petoek lotsa sentitzen dute beren deitura esaterakoan, eta gainera askok euskal abizena daramate jakin barik, zenbait erdal abizenek homonimo euskalduna baitute. Deituren anabasa dugu, nortasunen anabasa. Baina zer espero dezakegu Euskal Herri honetaz, bere identitatean hainbestetan erasotua? Euskalduna askotan Euskal Herrian bertan emigrante sentitu da, eta horrek bultzatu du nortasun-sinboloak (dela abizena, dela ikurriña) behin eta berri erabiltzera, explotatzera.

Ulergarria da neurri batean, baina sinboloen gainetik altxatzeko ordua heldu da. Duela ehun urte eskas, Sabino Aranak honela idatzi zuen: "hemen gureak eta bost sufritu behar izaten ditugu euskarazko bertso batzuen ondoren Pérez dioen sinadura bat irakurtzen dugunean, edo itsasoan galdutako marinel bizkaitarren zerrenda irakurtzerakoan deitura maketo batekin topo egiten dugunean". Ezin eredu grafikoagorik aurkitu. Sabino Aranarentzat, euskararen galera baino, arrazaren (abizenen) galera zen kezkarria.

Baliteke gaur egun Arana aipatzea zentzugabekoa izatea, baina XIX. mendeko nazionalismo arrazistaren azarnak begi-bistan dira XXI mende honetan ere. Euskalduntasun eta espainiartasuna (baita euskalkeria eta espainarkeria ere) abizenen arabera neurtzen da. Tristeia eta sinplea deritzot. Izan ere, nazionalismoaren oinarrian sentimenduak daude, eta hauek dira gure nazionalitatea markatzen dutenak. Gure abizenen atzean hainbestetan ezkutatzen bagara, ez al da izango gure sentimenduetan konfidantzarik ez dugulako?

Juan Arregi zenaren disekatutako animalien bildumarekin egin nahi den museoaren proiektua gogor kritikatu du ATEAk, animalien babeserako erakundeak. Proiektua Felix Ormazabalek zuzendu Gobernu foralak onartu zuen eta kirol-ehizari goraipamena bezala har daitkeelakoan dago ATEA.

Argantzun eta Trebiñoko alkateek eta UDA eta Zortzigarrenako ordezkariak Trebiñori buruzko Batzar Nagusietako Komision hitz egin zuten, bertan bizi den egoerari buruzko azalpenak emateko. Komisionak trebiñarrek zein administrazioaren menpe egon nahi duten erabakitzeko erreferenduma deitzeko eskatu zion Madrilgo Gobernuari alderdi politiko guztien onespenez.

Santa Maria de Garoñako zentral nuklearraren jardue-

ra ezustean gelditu behar izan zuten osterara ere, oker tekniko baten ondorioz.

1996tik aurrera jaiotako haurren gurasoek seme-alabentzako ize-nak aukeratzeko orduan euskarazkoak nahiago dituztela dioen txostena kaleratu du EUSTATEk. Analisiaren arabera, Araban jaiotako neska-toei sarrien jarri zaien izena Andrea da; mutilentzat, berriz, Asier izan da hautatuena.

**Orain arte Gasteizen dagoen Legrand lan-
tegia itxi eta Madrilgo Torrejon de Ardoz herrira eramateko asmoa dagoela salatu du ELA sindikatuak. Itxierak 60 langile utz ditzake kalean.**

Osteguneroko nekazari-tza azoka berreskuratu du Gasteizko hamasei urte luze eta gero. Plaza Berrian egiten zena, Zezen plazaren atzeko aparkalekuan egingo da hemendik aurrera.

ALDA EZAZU BIKOTEA HILABETERO



EROSOAGOA DA ETA

MULTILENS botatzeko lenteak

Ukipen lenteen abantail guztiak eta hilabetero berriak jatzeko erosotasuna.

Erabili... eta bota. Horren erraza.

Eta horregatik, beti ikusmen bikaina, ixurkari bakar bat eta begientzat ziurtasun osoa.

Eta ez dira lentixka arruntak baino garestiagoak!

MULTILENS botatzeko lenteak: Erosotasuna ez baita botatzekoa.




6 LENTIXKETAKO
KUTXATILA:
BAKARRIK 6.500 PTA.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



Aiztogile (Kutxi) kalean



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26
tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ



Errege Atea, 9 · **GASTEIZ**
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

martxoak 8

Hitzaldiak, erakusketak, aldarrikapena eta jaia

Otsailaren 21ean hasi zen Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, ospatzeko egitaraua. Antolatu bi erakusketetako bat inauguratu zuten egun horretan: Udal Zerbitzuak atondutako "Generoa eta Garapena" izena duena. Erakusketa ibiltaria da eta lau astetan zehar eta orden honetan Gasteizko lau Gizarte etxetan egongo da ikusgai: Aldabe, Lakua, Iparralde eta Europa. Otsailaren 28tik martxoaren 10a bitartean Arabako Amen Elkartearen ekimenez egindako "Emakumeen artean: Gure eskubideak amarengandik alabarengana" argazki erakusketa hartuko du Goiuri jauregiak.

Hitzaldiei dagokienez, otsailaren 28 eta martxoaren 10 bitartean eta astelehenetik ostiralera arratsaldeko 19,30etan Goiurin bertan, gai zerrenda anitzari errepasoa emango dioten hizketaldiak egongo dira. Osasuna, eraso sexualak, lana, prostituzioa, emakume eta gizonen arteko rol banaketa... dira landuko diren gaietako batzuk.

Martxoaren 8an, berriz, ez da hitzaldirik egongo, hausnarketak aldarrikapen eta jaiari lekua egingo dielako. Kolektibo guztiek batera deitutako manifestazioa arratsaldeko 8etan irtengo da San Anton Plazatik eta bi ordu beranduago, gaueko 10etan, Elefante Blanco dantzalekua izango da topalekua, eta Xiomara abeslari dominikarraren musika emanaldia, ekitaldi nagusia.

Zure eskubideak dira

Urtero legezt martxoaren 8aren inguruko ekintza egitarau zabala antolatu dute Gasteiz eta Arabako talde feministek Berdintasunerako Udal Zerbitzuarekin elkarlanean. Aurten otsailaren 21ean eman zitzaion hasiera programari eta martxoaren bigarren astea arte iraungo du. Egizan, Amagoia, Gizarterako, Arabako Emakumeen Asanblada, Emakume eta Justizia Elkartea, Maria de Maeztu Forum Feminista, Arabako Amen Elkartea, Gure Soroa-ko baserritarrak eta Emakume Langilearen Eskubideak defendatzeko Elkartea dira egitaraua osatzeko Udalarekin lan egin dutenak.

"Zure eskubideak dira" leloa aukeratu dute talde feministek Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruko ekintza sorta luzeari izen bateratua emateko. Lau asteko egitarauak emakumeari interesatzen zaizkion egunerokotasun handia duten gaiak lantzeko hamaikak txo erakusketa eta hitzaldi bildu ditu egitarauak, betiere aldarrikapena eta jaia ahaztu barik.



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ

GAUZAK EZ DITUGU DIREN MODUAN IKUSTEN,
GAREN MODUAN, BAI, ORDEA.
SARRITAN NEGAR EGIN NAHI DUGU,
NEGAR EGIN NAHI DUT...
ETA NEGAR EGITEN DAKIDALAKO
KONTENT SENTITZEN NAIZ.
AMETS EGITEKO IRRIKITAN NAGO
ETA DAGIT...
AMETS EGIN EZEAN
NON GEUNDEKE?
AMETS EGINEZ, EGIA BIZI,
TINKOTASUNEZ, EMAKUME IZATEN...
...EGUNETIK EGUNERA IKASTEN DELAKO...
KONTENT SENTITZEN NAIZ, NAIZELAKO!!!

Gasteizko emakume bat,
EMAKUMEEN OMENEZ.



hamaika kontu

GASTEIZKO KANPO ZORRAREN ABOLIZIORAKO SARE HIRITARRA (RCADE)

Hilaren 12an, Estatu osoko beste 170 herri eta hirirekin batera, Gasteizen kanpo zorra ezabatzearen aldeko kontsulta herrikoia burutuko da.

Erreferendum motako kontsulta honek, erantzungo ditugun hiru galderaren bitartez, Estatu espainiarreko gobernuari hegoaldeko herrialdeen kanpo zorra bertan behara utz dezan eskatzea izango du helburu nagusi.

Martxoaren 12 horretan hautesleku ezberdinen ondoan, mahaia, botu paperak eta kutzak ezarriko ditugu geure iritzia adierazi ahal izateko. Behar-beharrezkoa deritzogu Gasteiztar guztion parte hartzeari, ahalik eta ekimen zabalena izan dadin eta guztion botuez gobernuarekiko presioak indar handiagoa izan dezan.

Informazio gehiago edo hauteskunde egunerako laguntza eskaini nahi duenak, 667 28 38 77 telefono zenbakian aurki gaitzake, Amancay-gatik galdetuta.

EUSKALTZALEON ELKARGUNEKO TXOKOA

“Arabako Egunkarian”

Martxotik aurrera, eta 15 egunero,
Arabako Egunkariaren 2 orrialde bete
euskara izango dira,
Euskaltzaleon Elkarguneak koordinatuak.
Adi, beraz, orrialde horiei!



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

TELEBISTA Vs. IRRATIA

Ohiko gaiak alde batera utziz, komunikabideen munduan murgildu gara. Telebista eta irratiari buruz jendeak duen iritzia jakin izan nahi dugu. Horretarako Gasteizko kaleetara atera gara. Besterik gabe, ikus dezagun zer erantzun diguten!

1) Zein da asmakizun hobe, irratia ala telebista?



Almudena. Apaintzalea

- 1) Biak dira asmakizun onak.
- 2) Batez ere telebista erabiltzen dut, entzuteaz gain irudiak ere ikusten ditudalako.

2) Zein erabiltzen duzu gehiago? Zergatik?



Jose Ignacio Agiriano. Langilea

- 1) Irratia hobe da.
- 2) Telebista da bietatik gehien erabiltzen dudana, nahiz eta tarteka irratia ere entzun.



Enrique. Langilea

- 1) Dudarik gabe, irratia.
- 2) Irratia, bertan musika ugari entzun daitekeelako.



Sonia Sanchez. Ikaslea

- 1) Nire ustez, telebista.
- 2) Irratia baino telebista nahiago dut, bertan irudiak agertzen direlako. Horrez gain, telebistak lagun egiten dizu.



Olatz. Kazetaria

- 1) Irratia, nire ustez.
- 2) Egia esan, telebista oso ikusgarria da. Hala ere, iratiak aukera gehiago ematen ditu.



Raul. Musikaria

- 1) Irratia iruditzen zait asmakizun hobe.
- 2) Nik, behintzat, irratia erabiltzen dut.



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 •

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatura - Zaldiaran plaza • GASTEIZ



*"Garbi daukat Madrilen egon behar dela,
aurpegia eman behar dela"*

EA, zure hitzari eutsiz

Mikel Mintegi



*Han egonda bakarrik defenda
ditzakegu gure eskubideak tinko
eta koherentziaz.*

Begoña Errazti



*Ezin da aukerarik galdu Euskal
Herriaren etorkizuna erabakitzen
den erakunde guzti-guztietan esku
hartzeko.*


Andoni Perez



*Bakeak eta euskal arazoaren
irtenbide politikoak gizartearen
esku egon behar duela aldarrika-
tzen badugu, kontsekuenteak izan
eta Madrilen egon beharra
daukagu.*



Euskal Sozialdemokrazia



DANIEL CALPARSORO

Arg.: Ederne Koch (Egunkaria)

**"Gipuzkoako
iluntasunean
bizitzetik
Madrilgo
argitasunera
pasa naiz"**

zukua


Urtarrilaren 31an
Calparsoro
Gasteiza etorri zen
"Asfalto"
aurkeztera eta
berarekin egotea
lortu genuen. Hona
hemen, beraz, kon-
tatutakoa...

Daniel Calparsorok
argia ikusi du.
"Asfalto", bere azken
pelikula, argitasuna-
rekin parekatu du
zuzendari donostia-
rrak. Izan ere, Asfalto-
k ez dauka zerikusirik
aurretik egindako
hiru pelikula ilun eta
lausoekin. Bi urte
t'erdiz Madrilén bizi
izanak emandako

fruitua da "Asfalto",
liluratu eta harrapatu
duen hiriaren eragi-
naz egindako peliku-
larik positiboena.
Goi-mailako familia
batekoa izan arren,
Calparsorok ongi asko
erakutsi zigun "Salto
al vacío" eta
"Pasajes" bere lehen
bi filmetan giro marji-
nalak ezagutzen

zituela. Oraingoan,
ordea, amodiozko
istorio batekin dator-
kigu "Asfalto"-n, bere
pelikularik "normale-
nean".

"ASFALTO"



ZUZENDARIA:

Daniel Calparsoro

AKTOREAK:

**Najwa Nimri,
Gustavo Salmeron,
Juan Diego Boto,
Alfredo Villa,
Antonia San Juan,
Ruben Otxandiano,
Carla Calparsoro.**

GIDOIA:

**Daniel Calparsoro eta
Santiago Tabernero.**

MUSIKA:

**Mastretta eta
Najwajejan.**

ARGAZKIA:

Josep M.Civit.

PRODUKZIO ZUZ.:

Javier Arsuaga.

HERRIALDEA:

**Espainiar Estatua,
1999.**

FILMEAREN

AURREKONTUA:

300 milioi pezeta.

- Nola definituko zenuke ASFALTO? Zer kontatzen duzu bertan?

- Film hau argitsua eta bereziki sexia da. Emakume bat eta bi gizonen arteko amodiozko istorio bat da, baina maitasuna ez da gauza zoragarria bailitzan tratatzen, era burbil eta normal batean, baizik. Azala oinarri duen pelikula bat da, oso erotikoa dela uste dut.

- Zure laugarren luzemetraia bukatuta, atzera begiratzen duzunean, nola ikusten duzu orain zure burua Asfalto egin eta gero?

- Egia esan, nabiko ondo nago orain. Dena dela, ez pentsa azken lau urte t'erdietan horrenbeste ikusi eta ikasi ahal izan dudarik. Onartu beharra daukat hasieran oso gogorra egin zitzaidala "Salto al vacío" pelikula egitea, gero denborarekin ikasiz joan naiz, eta orain, azken pelikula honekin, goizean esnatu berria bainengon sentitzen naiz.

- ASFALTO Madrilen grabatu da. Zergatik han, eta ez Euskal Herriko hirietako batean?

- Zergatik Madrilen eta ez Euskal Herrian? Beno ba... Madrilen bi urte t'erdidaramatzadalako bizitzen, eta Madrilek

argi asko dauka, jendea oso irekia da..., eta horrek bultzatu nau pelikula hau egitera. Gipuzkoatik Madrilera bizitzera joatea, iluntasunetik argitasunera salto egitea izan da. Izan ere, Asfalto-k argi asko dauka, oso irekia da, oso sexia. Madril oso hiri sexia da, nik uste, asfalto eta zementu guztiaaren artean jendea nabasten da, mestizaje handia dago, leku guztietatik datorren jendea dabil eta jendeak elkar ezagutu nahi du. Ni Madrilera iritsi eta egoera horretan nengoen. Beraz, Madrilen biziko ez banitz, ez nukeen film hau egingo... Beste zeozer agian bai, hobe ala txarragoa, baina ziur horrelako film bat ez.

- Gainera abuztuan grabatu duzue. Madril abuztuan oso hiri itogarria da... Zer dela eta, orduan, sasoi horretan?

- Abuztuan grabatu dut nik Madril filmatu nahi nuelako, eta niretzat Madril argitasuna da, eta horrek abuztuan ez du huts egiten, abuztuan gehiegizko argia baitago Madrilen. Eta nik gehiegizko argitasun hori filmatu nahi nuen, arropa gutxiarekin doan jende hori, azaleko izerdi hori, elkar ikutzeko gogo eta desio hori..., promiskuitate, erotismo hori. Hori da finean abuztuan filmatzearen arrazoi nagusia.



Asfalto-ko taldea Guridi Zinemetan aurkezpenaren egunean.

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ehunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



**MIKEL
DELIKA**

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

- Zure aurreko hiru filmekin konparatuta, jauzi itzela eman duzu Asfalto-n, gehienbat indarkeria-
ren gaia jorratzerakoan.

- Pelikula bonetan, gidoitik basita, asko zaindu dut basiera-basieratik film ulerterraza izatea, automatikoa izatea, zailtasun gutxirekin, irakurterraza. Aurreko hiru pelikulek ez bezala, honek, egitura aldetik, lan tekniko handia dauka. Beste hiru pelikulak "biszeralagoak" ziren alde horretatik. Asfalto-rekin ez nuen autore pelikula bat egin nahi, filmatzeko eta zuzentzeko era aldatu nahi bainituen, eta balaxe egin dut..., eta azkenean besteak baino nireagoa den pelikula bat egin dut.

HIRUKOTE BEREZIA

- Nolakoak dira ASFALTOko protagonistak? Oso desberdinak al dira, esaterako, "Salto al vacío" eta "Pasajes"en agertutakoekin alderatuta?

- Bai, desberdinak dira giro diferenteetan mugitzen diren pertsonajeak direlako. Bat giro marjinaletan, bestea erdi-mailako giroan, eta neska bere kabuz doa berak bala nahi duelako. Baina aurreko filmekin konparatuz, alderik handiena da horrela bizi direla beraiek nahi dutelako, horrela bizitzea erabaki dutelako. Euren egoera muturrekoa iruditu daiteke, baina nik horrela egin dut hau zinea delako, eta ez dudalako nahi jendearen bizitza nor-

"Nik bat egiten dut pelikulan gertatzen denarekin, hots, bizitza ikus-
teko ikuspuntu horrekin"



DANIEL CALPARSORO

- ✓ **Donostiarra.**
- ✓ **Lau luzemetrai zuzendu ditu: Salto al vacío (1994), Pasajes (1996), A ciegas (1997), Asfalto (2000).**
- ✓ **Berlin, Donostia eta Venecia-ko zinema jaialdietan parte hartu du. "Asfalto" Berlingo Jaialdiaren sail ez-lehiakorrerako aukeratu dute.**

mala islatu. Nik film bat egin nahi dut, jendea entretenitzen duen filma, dinamismoa duen istorio bat, alegia.

- Eta zer-nolako jarrera dute protagonistek bizitzarekiko?

- ASFALTOko protagonistentzat guztia kaka zabarra da, baina pentsatzen dute: "eta zer?", alegia, ez dute esaten "guztia kaka zabarra da eta ni oso gaizki nago"; beraiei bost axola zaie guztia kaka bat izatea. Beraiek nahi dutena da egoera kaxkar hori gainditzea, baina euren bizitza batik bat amodio istorio batean oinarrituta dago. Hirukote bat da (Juan Diego Boto, Gustavo Salmeron eta Najwa Nimri) eta beraientzat garrantzitsuena da nor geratzen den norekin, zenbat maitatzen duten elkar, zenbat ez duten maite... Azken batean, pelikula honek "guztia kaka bat da" filosofia horrekin apurtzen du, eta horren ordezt planteatzen dena da: larrua jo eta ligatu badezakezu, aurrera!

- Hala ere, hirukoteak beti arriskutsuak dira, tartean traizioak daude..., guztia ondo buka daiteke edo oso gaizki...

- Asfalto-ko istorioak bukaera ona dauka, baina hori bai, traizioak, gezurrak, engainuak... egon badaude. Halere, protagonistek ez diote elkarri

"Asfalto-ko lantaldearen gehien-
goa euskalduna da. `Nik ez hitz egin... ulertzen pixka bat..., baina ez hitz egiten`"


LIBURUDENDA

axular



Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK



zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

"Hainbat zinematokitan euskarazko bertsioa emango da"

errurik botatzen, bizitza horrelakoa baita, eta garrantzitsuena ondo pasatzea delako. Beraiek badakite bizitza ez dela batere ona beraiekin, baina "zer egingo diogu!"; hori da eurek pentsatzen dutena.

- Pelikularen erotismoa berritasuna da zure filmografian...

- Baita oro har orain Espainian egiten den zine guztian ere. Nawja benetako "sex-symbol" a da pelikulan. Janzkera, hitz egiteko era, mugitzeko era sexyak dira. Neska oso ondo dago: ez du leloarena egiten, ez eta gizonak gorrotatu ere... emakumea izaten jakin badaki, ordea.

- Najwa Nimrik zure luzemetrai guztietan hartu du parte. Ez duzu beste emakumezko aktore batekin lan egiteko asmorik?

- Momentuz, ez. Ez dago Najwa baino gebiagotzatzen zaidan aktorerik.

EUSKARAZ HAINBAT ZINETAN

- Asfalto-ko gidoia Santiago

Tabernerorekin batera egin duzu... Bertan kontatzen duzun istorioa zeuk bizi izan duzu, ala beste batzuen bizipenak dira?

- Gidoia Madrilen bizi-tzeagatik sortu da, bertan ikusi ditudan gauzek, pertsonen, atmosferen, sentsazioen... eragin didate gidoia idazterakoan. Inolaz ere ez da autobiografikoa, ez da zerbait pertsonala. Halere, nik bat egiten dut pelikulan gertatzen denarekin, hots, bizitza ikusteko ikuspuntu horrekin.

- Nacho Mastretta-ren musikak ez dirudi egokiena zure zinerako...

- Ba... primeran funtzionatzen du! Irudiei swing berezi bat ematen dieten doinuak konposatu ditu. Horretaz gain, Najwajearen musika elektroniko "kañeroa" ere badago eszena zehatz baterako espreski egindakoa. Baina Najwak ez du bertan abesten.



Arg.: Luis Torres (EFE)

- Filmak euskaratzeko egitasmo-rik bultzatuko al luke Daniel Calparsorok?

- "Asfalto" Txepi Larak ekoiztua da, eta ETBren dirulaguntza jaso du. Pelikula euskarara bikoiztuta dago, eta hainbat zinematokitan euskarazko bertsioa emango da. Gainera, Asfalto-ko lan-taldearen gebiengoa euskalduna da. "Nik ez hitz egin... ulertzen pixka bat..., baina ez hitz egiten" (hitz hauek esan zizkigun Calparsorok euskaraz). Esan nahi dudana da alde horretatik pelikula hau ez dela baztertzaila, eta gainera guk gauza horiek ere kontuan hartu eta zaintzen ditugula.



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ondare kulturala. Ikerketa, hedapena...

Pintore Kalea, 68-B - 5. bulegoa.
Tfnoa: 945 27 90 31
begira@bezeroak.euskaltel.es

Begira



Testua: Toni Markez • Argazkiak: Toñi Lencero

HISTORIA



Arabako ipar-mendebaldean kokatzen den Kuartangoko bailarak ezezagunak diren hainbat altxor du, eta batzuk ezagutzera goaz.

Hain zuzen ere, Basabeko Urbinatarren Oinetxearen multzoa: Dorrea, etxea eta eliza.

Urbinatarren multzoak erabilpen asko nozitu ditu historian zehar, hone-la esan daiteke bertan eman dela populamendu edota giza erabilpen jarraikia.

KRONOLOGIA:

- Egitura tumular bat.
- Erromatar Behe Inperioko hipokausto baten aztarnak.
- Gaur egun zutik dauden eraikuntzetatik zaharrena XII. mendean Basabeko jaunak, Garcia de Mendoza Kondea, San Pedoren patronatua sortu zuen, hain zuzen San Pedro zeritzon monasterio erromanikoa.
- XIV. mendearen bigarren erdialdean babeserako dorrea altxatu zuten. Dorreak zituen banaketak oraindik ikus daitezke: behealdean biltegia eta kartzela, lehenengo solairuan sarrera eta gela nagusia, eta bigarren defentsarako aldea.



Solacueva aztarnategiaren sarrera

- XIV. mendearen amaieran Pedro Ortiz de Urbina jaunak epistolan kapera bat erantsi zion monasterioari fundatzaileen hilkutxak babesteko, eta zerraldoen oinetan erromatar hilarri bat ezarri zuten, hau leinuaren jatorrizko armarritzat jotzen baitzuten. Berak aginduta ebanjelio aldean dagoen hilobi gotikoa (Arabako onenetakoa) ezarri zuten.

- 1458.ean San Pedro elizak, monasterioaren abade eta Kuartangoko Artzapesa zen Martin Ortiz de Urbina jaunaren aginduz, egun duen itxura hartu zuen.

- XV. mendearen 2. erdialdean Anaiarten mugimendua zela medio, dorreek garrantzi militarra galdu zuten, eta ondorioz nekazaritzarako etxalde bihurtu zuten multzoa.

- XVI. mendean kanpoko kanpai-horma erantsi zitzaion multzoari.

- XVIII. mendean Jose de Urbina y Egiluz-ek itxura aldaketa asko bultzatu zituen; hala nola hormak kareaz estali, dorrearen defentsarako piezak (mentsulak, ...) kenarazi, eta San Pedro elizak egun dituen ganga barrokoak ere eman zizkion.

Badirudi ere berak aginduta ebanjelioaren aldean dagoen pilastran erromatar hilarria ezarri zutela.

Aldaketek beti errespetatu zuten multzoaren babeserako zuen dorrearen egitura; hura bai zen Urbinatarren leinuaren bermea: kristau zaharrak, Errekonkistan parte hartu izanaren ikurra,...

TXANGOA



✓ **Aurrehistoriaz** gozatzeko bi aukera dituzue: lehena familia osoak egiteko moduan, bidea erraza eta laua delako, baina bigarrenak dituen zailtasunak kontuan harturik, hobe ume txiki-rik ez eramatea, edo behintzat mendian ibiltzen ohiturarik ez dutenak.

✓ **Katadianoko trikuharriak** bisitatuz, erne ibili behar duzue zuhaizkak ezkututzen baitituzte.

✓ **Jokanoko** Solacueva haitzuloan dauden margoak eta

aztarnak ikustea. Bidea mendian gora izanik, ez da oso aproposa umeentzat, batez ere azkeneko zatia. Giltza herrian eskatu behar da, babesteko itxita dago-eta.

✓ **Bazkaria** adibidez Aprikanoko Drake tabernan izan daiteke, ondo eta merke jaten baita. Aldez aurretik telefonoz deitu behar da.

✓ **Basabeko** Urbinatarren Oinetxea bisitatzea.

Aprobetxatu behar dugu horrelako aukeren barrualdeaz gozatzeko... Udaletxera deitu ea zortetik dagoen!!!

Nola heldu

Zuhatsu Kuartangora heldu eta A-3316 toki-errepidea hartu Santa Eulaliaraino, eta han atzera egin eskuineko bide berri bat hartuz Basaberaino.

Nola bisitatu

Urbinatarren Multzoa itxita egoten da, dena den gure ustez interesgarriak suerta daitezke bertan urtean zehar burutzen diren erakusketak. Eta interesa handia bada proba daiteke Kuartangoko Udaletxera deituz multzoa ikusteko.

PROPOSAMENA:

Eskoriatza-Eskibel
Jauregian: Erdi Aroko gaua, martxoaren 4an, gaueko 12etan.
Sarrerak Oihaneder (Montehermoso) jauregian.



BIBLIOGRAFIA

- ✓ "Euskal Prehistoria deskubrituz". Euskal Turismoko Gida. Julia Gomez Prieto-Joëlle Darricam.
- ✓ Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria. VII. liburukia.
- ✓ Bizitza, Kondaira eta Artea Koartangoko Ibarrean. Geurea Baloratzen publikazioa. A.F.A.

KOKORTUZ

TXOTXONGILOA: Krokodiloa

➤ Helburuak:



- ✓ Irudimena landu.
- ✓ Erraztasunez panpin berri bat sortu.
- ✓ Material merkeak erabili.
- ✓ Eta noski ... ONDO PASATU i!!i!!

➤ Zailtasuna: 8 urtetik aurrera.

PAUSOAK:

- Kolorezko kartulina batean krokodiloaren muturra eta oinak margotu eta guraizekin moztu.
- Kolore desberdineko beste kartulina batean 4 zentimetroko zabalera duten 2 tira luze egin. Eta beste kolore batekin, krokodiloaren mingaina eta begiak.
- Lortutako 2 tirak erantsi bata bestearen gainean L itxura emanaz. Tolestatur joan -tira bat bestearen gainean- akordeoi itxura lortu arte.
- Orain hankak jarriko dizkiogu krokodiloari. Hartu hari zatitxo bat eta sartu pajita barruan (4 pajita). Ondoren, pajitatik ateratzen diren bi hari zatiak erantsi zeloarekin, bata oinari eta bestea gorputzari.
- Krokodiloari muturra, mingaina eta begiak ipintzeko ordua heldu da. Itsatsi, ba, gorputzean!
- Krokodiloari mugimendua emango diogu, horretarako zelo zatitxo batekin erantsi hari bat krokodiloaren gorputzaren erdian.
- Lotu haria gurutze itxura duten bi makiltxoei.

Eta... **BADUGU
GURE KROKODILO
TXOTXONGILOA i!!i!!i**



PLISTI-PLASTA

ASTI LIBREA EUSKARAZ!!!
TELEFONOA: 656739030

FITXA TEKNIKOA:

Izena: Yera

Urteak: 8 urte

Ikastola: Ursulinas Ikastetxea

Maila: Lehenengo hezkuntzako 3.a



“Nire hobby-a landareak zaintzea da”

Ilargia... Zer ote dago ilargian? Ba horixe da Yerairen ametsa, egunen batean... ilargira joatea eta han zer dagoen jakitea. Hortik aparte, naturazale amorratua da: loreak eta landareak ureztatu, ongarriak bota, eta noizbehinka artaziz hosto lehorrak moztzen ditu...

Asteburuetako goizetan, asko bezala, maindireak ezin kendu bueltaka eta bueltaka ohean ibili ohi da. Dena den, Yerairen gainean gehiago jakin nahi baduzue irakurri arretaz ondorengo hitzak, eta ondo pasa!

- Zenbat ordu lo egiten duzu egunero?

Hamar ordu

- Eta asteburuetan, zein ordutan jaikitzen zara? Hamabietan

- Zer gosaldur ohi duzu?

Maicena esnearekin.

- Zure janari faboritoena? Pizza

- Eta edaria? Coca-cola

- Pelikula bat? "Burnizko erraldoia"

- Ikasgai gogoko bat? Heziketa fisikoa

- Eta gustukoa ez duzuna? Ingurunearen ezaguera

- Andereñoak edo maisuak? Andereñoak

- Piropo bat botatzen dizutenean, zer egiten duzu? Isildu egiten naiz

- Abesti bat? Pitufo Mix 2

- Bizikleta lehen aldiz hartu zenuenean, erori al zinen? Bai eta horietako batean kokotsean puntu pare bat eman zizkidaten

- Gogoan duzun abentura edo anekdota bitxiren bat? Bi urterekin nire arreba, jaioberria zena, eskuartean nuela logelatik sukalderraino eramane nuen

- Alkate bazina zer egingo zenuke?

Ikastolak kendu eta Maturanatik Mendixurera bide bat ireki

- Animalia bat? Txakurra

- Zure hobby handiena? Nekazaritza, landareak ureztatu eta moztu


- Astero ikastolara zenbat egun joango zinateke? Bi egun

- Nagusia zarenean zer izan nahi duzu? Astronauta

- Ze hiru gauza eramango zenituzke irla batera? Dirua, arropa eta maletatxo bat

- Asteko egun hoberena? Ostirala

**BARRUTIA
IKASTOLA
5. A**





Lehiaketa

txiki park

SARIA: Txiki Park-erako 2 sarrera

Otsaileko erantzuna: "KROKODILO"

Irabazlea: Josu Garcia Garcia • ZORIONAK!




"A ze parea, karakola eta..." Nola amaitzen da atsotitz hau?

**Bidali erantzuna lehenbailehen...gure helbidera
(4. orrialdean) Izena eta Telefonoa zehaztuz**


Ez gehiago
itxaron,
egin zaitez
gure klubeko
bazkide

Domingo Beltran kalea, 53 - 01012 Gasteiz - Tnoa. 945 20 00 02



- Ikastolako atsedeenaldian zein da zure joko gogokoena? Futbola eta kanikak
- Klase amaieran zer nahiago duzu txirrina edo abesti bat? Txirrina
- Amets beldurgarri bat? Zezen zoro bat nire atzetik datorrela
- Etxeko lanetatik zeintzuk egin ohi dituzu zuk? Platerrak jaso eta pijama gorde
- Nola egiten da patata tortila? Ez nago ziur, baina patatak zatitzen ebakitzen naiz...
- Nolakoak dira marteko biztanleak? Berdeak eta sei hatzamar eskuetan

Testua: Itziar Uriarte • Argazkiak: Edrota Sanz



Arri6 5-A
BARRUTIA

AIMAR 5A
SARRUTIA

Gorka 5.A
BARRUTIA

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER MIZPIOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

iturrieta

Sagardotegia



2000. urtean, zer?
Sagardo berria, jakina.

Arraga auzoa.
tfnoa: 945 44 53 85
ARAMAIO

adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 – Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Diputazioaren aurrekontuak: luzatuak ala etenda?

Arabako Diputazioaren aurrekontuen luzapenak ekarriko dituen ondorioen inguruko hausnarketa da azken garaian Arabako politikagintzako gai nagusienetakoa. Sortutako egoera Gobernuan dauden PP eta UAren ezintasunaren adierazle den edo oposizioko alderdien arduragabetasunak sortu duen erabakitzeke etengabeko eztabaidan murgilduta daude alderdi politikoak eta puntu bakar batean jarri dira ados: hauteskunde orokorrak eta geroko hilabeteetan, martxoan apirilean, zehaztuko dira legegintzaldiko datozen hiru urteetako nondik-norakoak.

Alderdien arteko intentsitate handi edo txikiagoko eztabaidak aparte utzita, herrialdeko kontuei buruzko akordioak ez lortzea eragin zehatza izaten ari da hainbat arloren funtzionamenduan. GEUK kultura mailako analisia egin du alderdi politiko eta ordezkari publikoen iritzia jasoz.

Arabako Foru Aldundiko ordezkariak kexu azaldu dira behin baino gehiagotan iazko aurrekontuak luzatu behar dakartzan ondorioez. 2000 urteko aurrekontuak onartu ez izanaren ondorioz, dirurik ez duela ere esan zion Pedro Sancristoval Kulturako foru diputatuak GEU aldizkaria eta GEU elkarteko ordezkari bati. Oposizioko alderdiek, berriz, luzapenaren aitzakiarekin Arabako gestioa etenda izatea leporatzen diote Gobernuari.

DIRURIK BAI?

Manuel Ibarrondo EAko Arabako Ejekutibako presidentea eta Batzar Nagusietako kideak azaldu duenez, aurrekontuaren luzapenarekin normaltasun osoz gobernatzea posible da eta Gipuzkoako Diputazioa horrela ari dela gogoratu du, "baita Eusko Jaurilaritza ere EHrekin legegintzaldi akordioa lortu bitartean".

EAK luzapenaren aitzakiarekin PP-UA Gobernuak Diputazioaren jardura erabat etenda duela salatu berri du, eta horrela jarraitzekotan Ramon Rabanera Ahaldun nagusiak dimititzea



Pedro Sancristoval Kultura diputatua

hobe lukeela ere adierazi. 2000. urterako aurrekonturik ez onartzea eta luzapenarekin lan egin behar izatea ez da etetze horren arrazoia EAren iritziz, "dirua egon badagoelako, gutxienez iaz adinako kopurua. Eta foru legediak diru partidak onartzeko bidea zehazten du: Batzar Nagusien gehien-goaren onarpena izatea".


Batzar Nagusietako EHko taldean kultur gaien ardura duen Iñaki Ullibarrik ere proiektuak aurrera eramateko dirurik ez egotea aitzakiatzat jo du: "Hori gezur hutsa da eta Gobernuak badaki". Horren froga garbia dagoela dio gainera: "Arabako Lurralde Historikoaren Boletinak Pablo Mosquerak zuzentzen duen Kirol eta Gazteria Sailak onartutako dirulaguntza eta partida ekonomikoen berri dakar. Kirol Sailean posible bada argi dago besteetan ere egin daitekeela".

Iñaki Ullibarriren ustez UAK ahalik eta errentagarritasunik handiena atera



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



Oposizioko alderdiek luzapenaren aitzakiarekin Arabako gestioa etenda izatea leporatzen diote Gobernuari

"Egungo egora lege gintzaldi guztian zehar luzatuz gero, basamortu kultura lortuko duelako PPk Araban" (Iñaki Ullibarri. EH)



"Aurrekontuaren luzapenarekin normaltasun osoz gobernatzea posible da" (Manuel Ibarra. EA)

"Dirua egon badago, gutxienez iaz adinako kopurua" (M I. EA)

nahi dio Diputazioaren Gobernuaren duen postuari eta, horregatik, ez du onartu bere ardura duen sailaren jardura gelditzea. PPk, berriz, martxoaren 12ko emaitzen zain egotea nahia go omen du.

PROPOSAMENAK

Beraz, zer dakar Diputazioak 99ko aurrekontuak luzatuta lan egin behar izateak? Ibarra eta Ullibarri azaldu dutenez, praktikan Foru Departamentu bakoitzak iazko kopuru berdina dauka erabilgarri. Hori bai, diru partida berriak onartu edo horiek handitu nahi izanez gero Batzar Nagusien onespina behar da, "eta mugak egon badaude, baina zifrak astronomikoak dira" EHren batzarkideak dioenez.

EA bezala EHko taldea ere kezkatuta agertu da PP-UIA Gobernuaren jarrerak sortuko dituen eraginengatik eta horiei aurre egiteko proposamen zehatza aur-

keztu dute. Kulturari dagokionez, 1.100 milioi pezetaren beharra aldarrikatu du koalizioak: 800, euskalgintza mailako beharrik larrienak betetzeko -euskarazko kultur zirkuitoa martxan jarri, Arabako herrietan euskara klaseak bermatu eta koadriletan normalizazio planak aurrera eramango dituzten euskara teknikarien kontratazioa...-, eta beste 300 bat kultur gintzan diharduten taldeen jardura laguntzeko.

Izan ere, politikoen eztabaiden gai nagusia den luzapenak kolektibo eta talde konkretuetan arazoak sortu ditu. "Dantza eta antzerki taldeek, Geu aldizkaria bera, eskautak eta abar... gure taldera jo dute dagoeneko laguntza eta azalpen eske. Eta kultur gintzan egoera larria bada, are larriagoa izango da Gizartegintza Sailean, non talde askok dirulaguntza publikoak baitituzte bizirauteko iturri bakarra", adierazi du Iñaki Ullibarri. Talde politiko, kultural eta sozialen kezka hauek guztiak argi-



KAMISETAK:
KUKUXUMUSU, KOT,
PERRETIXIKOAK BASOAN, BARABÚ...

Opariak eta euskal oroigarriak

Euskal oihalak: mantelak, zapiak...

NONBAIT

Loma jeneralaren plaza, 5
Mateo de Moraza, 7

GASTEIZ

Tel./faxes: 945 232229
nonbait@nonbait.com

ZURE EUSKAL DEZAK

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztekoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

GASTEIZ

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

BAR KLAKÉ



KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ

tzeko Sancristoval diputatuak Batzar Nagusietan azalpenak ematea ere eskatu du EHk.

GESTIOA ETA POLITIKA

Egoera honek Diputazioaren ...eta Araba osoko hainbat eta hainbat talderen!!!- eguneroko kudeaketan ekarritako ondorioez aparte, eragin politikoa ere ez da ahaztu behar. Agian, horregatik, hemendik aurrera zer gertatuko den galdetzerakoan martxoa arte itxaron behar dela erantzutean bat datoz galdetutako gehienak. Eta gertatuko denaz iragarpen bat egitea ezinezkoa denez, kinielak egitearekin konformatu behar: "martxoaren 12an PPk irabazten badu, Araba eta Gasteizko erakundeetan PSE-EEri laguntza handiagoa eskatzeko indarturik egongo da; PSOEk irabaziz gero agian Udala edo Diputazioaren ardura nagusia eskatuko dio PPri, udan zeukan planteamendura itzuliz. Hauteskundeak hemen bertan daude eta alderdi bakoitzak bere kalkulak egiten ditu" aitortu du Ullibarrik. Eta emaitzak garrantzitsuak izango dira, "egungo egora legegintzaldi guztian zehar luzatuz gero, basamortu kultura lortuko duelako PPk Araban". Bitartean PPk biktimismoaren jarrera hartu duela uste du, gizartearen aurrean ideia asko dauzkatela eta proiektu asko egin nahi dituztela azaldu, "baina Lizarra-Garaziko Ituneko alderdiek uzten ez diegula".

Martxoa arte...

2000. urterako aurrekontu proiektua egin eta onartzeko ados jarri ez badira ere PPk eta PSOEk Diputazioaren beharrik larrienak betetzeko 1.523 milioi pezetako partida bat aprobatzea lortu berri dute. Diru kopuru horren zatirik handienak gizartegintza eta azpiegitura gaietarako izango dira: Kultura Sailak ez du pezeta bat ere jasoko bertatik. "Guk nahiago genuke lehenbailehen erabilgarri dugun dirua handitu ahal izatea, baina martxoko hauteskundeak pasatu arte ez dugu inolako aldaketarik espero", azaldu du M^a Jesus Beriain Kultura zuzendariak. Aurrekonturik gabe lan egin behar izatea oztopo dela aitortu du Beriainek, "Departamentuak duen dirua jaitsi egiten delako. Urtebeterako diren partida guztiak ezabatu egiten dira aurrekontua luzatzean". Partida horiek berreskuratzeko Batzar

Kultur Saileko arduradunek ez dute, martxoa arte behintzat, Arabako parlamentuan inolako eskabiderik egiteko asmoa

ARCO urtebeterako partida izanda Madrilera joateko dirua nola lortu den galdetuta, "urtero joaten gara" erantzun du M^a Jesus Beriain Kultura zuzendariak

Nagusietako onespena behar du Kultura Sailak, arestian Iñaki Ullibarrik azaldu bezala, baina bertako arduradunek ez dute, martxoa arte behintzat, Arabako parlamentuan inolako eskabiderik egiteko asmoa, nahiz eta teknikoki dirua lor daitekeela onartu.

Gauzak honela eta praktikan aurrekontuak luzatuta, Diputazioaren Kultura Sailak 522 milioiko aurrekontua duela dio Beriainek; eta horietako gehienak ez dira gizartera iritsiko ohiko gastuetarako direlako (langileak,...). Horrela ere, Sailak lanean diharduela azaldu du Beriain zuzendariak, aurrekontuaren luzapen praktikoak ez duelako arlo guztietan eragiten. ARCO arte garaikidearen feriara joan direla gogoratu du, besteak beste, eta hori ere urtebeteko partida izanda Madrilera joateko dirua nola lortu den galdetuta, "urtero joaten gara" erantzun du.



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean
- Arte ederretarako...
behar duzun
guztia

PAPERTEGI TEKNIKO A

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Koldo, Jose Angel eta Josu, gainontzeko arabarrok bezala, euskarak gure herriaren islan duen garrantzia ahaztu ezinean merezi duen tratua ematen saiatzen dira, nola eta euskara egungo bizitzaren errealitate bilakatuz.

Hortaz, etxean, familia eta adiskideekin ezezik, hiru lagun hauek beren negozioetan ere euskara suspertzeko apustu egin zuten aspaldi.

Hirurek aitortzen dute betidanik euskal kulturarekin nahiz euskal munduarekin harremanetan egon direla, "gaztetan giro aberztalean sartuta nengoenez euskara ikasteko grina sartu zitzaidan, jendeak gipuzkoarra nintzen galdeztzen zidan", dio Koldo Ortizek, "oraindik ere gogoratzen dut egin zen lehenengo Araba Euskaraz".

Gauzak horrela, beren lanean ere euskararen erabilera ugaltzeko aukera ikusi eta aprobeztatzen jakin dute arabar hauek. Josu Olano, Albeniz liburudendakoak dio Gasteizen euskarak eta euskal kulturak esparru propioa behar dutela. "Nolabait horiek garatzeko ditugun kontzeptuak, hala nola, auzo-dinamika, mugimendu sozialak... erabiltzen jakin behar dugu, eta ondorioz, euskara eremu orotara hedatuko da".

Geu-rekin bat eginik hasiera-hasieratik

EUSKARA...

EUSKARA ISLATZEKO TRESNA

Publizitatea euskara gizartearen barreiatzeko tresnatzat jotzen dute gure dendari hauek, Olanoren esanetan, "guk publizitatea gure ideiak bideratzeko erabiltzen dugu, eta ez merkealdien berri emateko, Geu aldizkarian ikus daitekeen moduan". Jakina denez, hiru denda hauek, beste hainbatek bezala, Geu aldizkariari sorkuntzatik oso eskertzekoa den laguntza eskaini diote. "Honen hastapenetan lagun batek aldizkariaren berri eman zidan, orduan, euskarari laguntzeko asmoz publizitatea sartzen hasi nintzen, eta etorkizunean ere jarraitzea espero dut", dio Madinabeitiak.

Madinabeitiak aipatzen du

gero eta bezero gehiago dendara euskaraz galdetzen sartzen direla. "Bai euskaraz egindako publizitateari bai atean jarrita dudana bai euskarari kartelari esker gero eta jende gehiagok hitz egiten dit euskaraz".

Bestetik, Koldo Ortizek publizitatearen zalea ez dela aipatzen badu ere, onartzen du euskaraz egindako publizitatea erakargarritasun handikoa dela. "Euskara dela eta, nahiz eta ez erosi, harreman berezia sortzen da bezeroarekin, harreman ona, orduan konturatzen gara Gasteizen pentsatzen duguna baino euskaldun kopuru handiagoa dagoela".

Azkenik, eta hirurok bat datozela, hiritarrak euskaraz mintza daitezen deialdia egiten dute. Animo bai!

Hiru lagun hauek beren negozioetan ere euskara suspertzeko apustu egin zuten aspaldi.

☞ Josu Olano Cuesta Bilarren jaio zen orain dela 42 urte. Ezkonduta eta 2 eta 4 urteko seme-alabekin, arabar hau Gasteizen euskarak esparru propioa izan dezan bere esku dagoena egiten saiatzen da.

☞ Badira hainbat urte Josu euskara bere kabuz ikasten hasi zela, eta EGA titulua lortu ondoren AEKn irakasle aritu zen.

☞ Egun Benito Ginea kalean dagoen Albeniz liburudendako nagusia da. Bertan prentsa, liburuak eta papergintza aurki daitezke; hala eta

guztiz ere, Josuk euskal kultura sustatu nahian denda handitzea du egitasmotzat etorkizunean, "liburuen eskaintza zabalagoa izango da, bai euskaraz bai erdaraz irakurtzeko aukera gehiago izango dela...".



...JALGI HADI DENDARA

☞ Duela 15 urte ireki zuen Koldo Ruiz Ruedak Kide altzaridenda. *“Ni garai horretan AEK-ko irakasle nintzen, baina emazteari negozioarekin lagundu asmoz zerotik hasi ginen biok mundu honetan”.*

☞ 47 urte dituen gasteiztar honek bere gurasoak Gaztelatik etorriak eta bera euskalduna izatea azpimarrazten du: *“Badirudi kanpotik bazatoz euskara ikasteko zailtasuna dagoela..., dakusagunez ez du horrela izan behar”.*

☞ Koldok 17 urteko alaba bat dauka. Bitxikerien artean bat bereziki aipatzen du: *“Euskara ikastea minoi bati eskertu behar diot, Iñaki Urteagari hain zuzen ere, bera izan baitzen nire hasierako irakasle”.*



“Badirudi kanpotik bazatoz euskara ikasteko zailtasuna dagoela..., dakusagunez ez du horrela izan behar” (Kide-ko nagusia)

“Euskarari laguntzeko asmoz publikitatea sartzen hasi nintzen, eta etorkizunean ere jarraitzea espero dut” (Madinabeitia)

☞ Jose Angel Madinabeitia Olariaga usadioz negozio familiar bilakatu denaren nagusia dugu; izan ere, 42 urteko gasteiztar hau Florida kaleko Madinabeitia ize-nez ezaguna den altzaridendako arduradun gorenaita. *“Txikitatik gustatzen zitzaidan dendan izatea, horregatik nire aitonarena zen hau oinordetu nuenean Foru Aldundian neukan lanpostua utzi, eta altzarien salmentara dedikatu nintzen”.*

☞ Jose Angelen amak euskaraz jakin arren, bera euskaldunberria da. *“Nire ama Andoaingo zen, baina aita erdalduna zenez etxean erdaraz mintzatzen ginen”.* Jose Angelek bere 7 eta 9 urteko alabeekin euskaraz hitz egiten du, *“alaben aitzakia zela eta, orain dela lau urte ikasi nuen... Lanetik irten, bazkaldu eta alabak ikastolara eramanez aurretik euskategira nihoan”.*



MILA ESKER GUREKIN IZATEAGATIK... EUSKARAK MEREZI DUELAKO, ETORKIZUNA EUSKARAZ DATORRELAKO!!!

Eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen publikitateari esker Geu aldizkaria urterik urte posible egiten duzuenoi nahiz euskararen oraina eta etorkizuna lantzen duzuen denoi: Albeniz liburudenda, Mendia Optika, Lasagabaster Harategia, Xabier Taberna, Zazpi taberna, Olarizu Mendi Herriko Taberna, Alde Zaharreko Herriko Taberna, Gasteizko Batzokiak, Bacalao Giraldo, Ika Euskaltegiak, Kide, Rafa Teja Atelier, Artepan, Mikel Delika, Axular, Zurbeltz, Iturrieta Sagardotegia, Kalamua Taberna, Nonbait, Udaberria Euskaltegia, Erramun, Klaké, Toki Eder Ikastola, Koldo Mitxelena Ikastetxea, Dibutec, Aranbizkarra Autoeskola, Jose Luis Garmendia Harategia, Xabier Aizpiolea Harategia, Madinabeitia, Sartu, Quetzal, Amilamia, Cegasa, Hegoalde Euskaltegia, Xixilu Taberna, Hirurak Jatetxea, Txapelarri, Albeniz Jatetxea, Eskua, Miko, Goretti Ileapaindegia, Plató Taberna, Izarra Jatetxea, La Riojana Jatetxea, Irusta Taberna, Parral... Mila esker!!

JON AIZPURURI

LEHENENGO OROIGARRIA



Urtarrilaren 30eko goizean Jesus Obrero Ikastetxeak ibilbide zikloturistikoko bat egin zuten gure hiriko kaleetan zehar. Ibilbidearen helburua zein eta euskarari bultzada bat ematea; izan ere, martxa zikloturistikoko hau ikastetxea aurrera eramaten ari den euskararen aldeko kanpainaren barruan kokatu behar baita. Kanpaina Jon Aizpuru jesuitarraren omenez gauzatu da, antolatzaileen esanetan "heziketara euskararen erabilera defendatuz ahalegin handiak egin baitzuten". Horrela, bada, giro ederraz eta eguraldi ezin hobeaz hirurehun per-

tsona inguruk Gasteizko kaleak zeharkatu zituzten, "euskarak hasitako ibilbide onuragarria txirringaz aurrera eramateko asmoz". Ekitaldian ikastetxeko zenbait ikasle, ikasle ohi, irakasle eta Vitalicio zein Euskaltel taldeetako txirindulariek parte hartu zuten: bertan izan ziren Gonzalez de Galdeano anaiak, Beloki, Aitor kintana eta Gonzalez de Heredia, besteak beste.

EUSKARA KANTUZ, BIZIRIK

Jon Aizpururen omenaldiari jarraipena emanez, Agate Deunaren egunean Jesus Obrero ikasleak Santa-eskean irten ziren euren kantu eta musika doinuez antzinako tradizioari eutsi nahirik. Kanpainari dagokion amaiera emateko lehenengo Eskolarteko Jon Aizpuru Bertso eta Kanta Txapelketa burutu

berri dute Jesus Obreroak. Bertako irakaslea eta Arabako Bertso Eskolako partaide ohi den Xabi Ormaetxearen ahotan, lehia txiki honen bidez gazte-txoengan bertsolaritzarekiko grina piztu nahi izan da, haien burutazioak bertsotan aska ditzaten.

Hurrengo urteotan Jon Aizpururi Oroigarri hau egiten jarraitzeko asmoa dute antolatzaileek, baina bestela ere, urtean behin euskarari omenaldi txiki bat egin nahi izaten diote ikastetxearen Kultur Astearen baitan. Jesus Obrero Ikastetxeak bi mila ikasle baino gehiago ditu gaur egun DBH eta Batxilergoko artean, eta beste hainbat ere badira Goi eta Erdiko Heziketa Zikloetan ari direnak. Zentroak euskal kulturaren garapena defendatuz, A ereduaz gainera, B eta D ereduak eskaintzen ditu. Egun ikaslearen erdia euskarazko ereduaren ari da, eskaera egunez egun igotzen doan bitartean.

"Jesus Obrero Euskararen aldeko akordioa sinatu zuenetik gure hizkuntzaren normalkuntza lortzea izan da asmoa eta helburua"

Egun ikaslearen erdia euskarazko ereduaren ari da, eskaera egunez egun igotzen doan bitartean

"Euskal giroa hazkundera dago, Gasteiz hiria eta Lehenengo Hezkuntza kontuan izan-

da, 10etik 8 ikasle eredu euskaldunak hautatzen ditu eta horrek asko esaten du"

"Hamar urte barru hona iritsiko zaizkigunak euskaldunak izango direla ziurtatuta dago"

JESUS OBRERO, etorkizuna euskaraz

Hogeita hiru urte daramatza irakasle lanetan eta duela urte eta erdi Jesus Obrero Jesuitarren Ikastetxea zuzentzen. Erreterian jaio eta Tuteran hazi zen bi anaia eta hiru arrebaren artean. Guraso euskaldunengandik ikasi zuen euskaraz, garai horretan Tuteran familia euskaldun bakarrenetakoa bazen ere.

- Zein da ikastetxearen konpromisoa hurrengo urteei begira?

- Oso argi dago. Jesus Obrerok Euskararen aldeko akordioa sinatu zuenetik gure hizkuntzaren normal-kuntza lortzea izan da asmoa eta helburua. Akordioaren plan estrategikoaren barnean ikastetxeen egokitzapena azpimarratzen zen eta horretan ari gara gu ere. Modu apa-

lean, hala ere, Gasteizen eta Jesus Obreron ere pauso asko geratzen baitira oraindik emateko. Baina hau da gure errealitatea eta aurrera egiten saiatzen ari gara... Aukera guztiak ditugu, bai Batxilergoetan nola DBH ikasketetan euskaraz edota gaztelaniaz ikas- teko aukera luzatzen diegu gure ikasleei.

- Nolakoa da ikastetxean euskara- gaztelania arteko oreka?

- Guk hemen sei taldetako egitura dugu, eta horietatik bi D ereduak dira. Gero, kurtso batzuetan badago erdibideko talderen bat, B ereduan, eta gainontzekoan gaztelarazkoak dira. Hori DBHn, baina Batxilergoko beste sei taldeetatik bi ere euskaraz mantentzen dira. Ikasleen kopuruari begiratuta euskarazko taldeak sortzen ahalegintzen gara beti, gure nahia aurretik dihoa, baina askotan ez da posible izaten. Ikasleek D eta B ereduetan jarrai dezaten animatzen saiatzen gara...

EUSKALDUNTZEKO BIDEAN

- Aldaketarik aurreikusten al da hurrengo urteei begira euskarari dagokiolarik hezkuntza zikloetan?

- Bi motatako zikloak lantzen ditugu hemen, hala Erdikoak nola Goi mailakoak. Goi Mailakoetan euskara sartzeko oraindik goizegi dela iruditzen zait, baina Erdikoetan eta epe motzera euskal taldeak sortzen hasi nahi dugu berehala. Batxilergo euskaldunetatik ateratzen ari den jende kopurua urria da oraindik, gehiengo erdalduna da eta alde hori pixka bat kostatuko zaigu oraindik. Baina Erdiko Zikloetan, mekanizazio arloan ditugun bietatik



Jose Manuel Añon, Jesus Obrero-ko zuzendaria

bat behintzat euskaraz izatea posible ikusten dugu une honetan.

- Hezkuntzaren mundutik orduan, zer-nolakoa ikusten da euskararen egoera Araban eta Gasteizen?

- Ba, eskaera aldetik oso egoera baikor eta indartsua aurreikusten da. Euskal giroa hazkundera dago, Gasteiz hiria eta Lehenengo Hezkuntza kontuan izanda, 10etik 8 ikaslek eredu euskaldunak hautatzen ditu eta horrek asko esaten du. Hamar urte barru hona iritsiko zaiz-

kigunak euskaldunak izango direla ziurtatuta dago.



**Jon Aizpuru jesuitarraren omenez
Jesus Obrerok euskararen aldeko
zenbait ekitaldi antolatu ditu**



"Sinesten dudana edonoren aurrean defendatzen dut"

-Duzun biziorik handiena?

Lo egitea.

-Bertutea?

Nik uste dut bakoitzaren bertuteak besteek aipatu behar dituztela eta ez norberak.

-Zer eskatzen diozu bizitzari?

Zoriontasuna izatea, eta nire umetxoak nola hazten diren ikustea, haiek zoriontsuak diren ikusi ahal izateko.

-Zer eskatzen du herriak?

Euskal Herriak hitza eskatzen du bakea eraikitzeke.

-Jeniorik ba al duzu?

Baietz diote,... bai.

-Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gauza bati buruz gutxi dakien pertsonak jakintsua balitz bezala hitz egiteak.

-Geu-ren berririk bai?

Bai, hasieratik jasotzen dut aldizkaria.

-Egunkari bat?

Arabako egunkaria irakurtzen dut.

-Pelikula onen bat?

Zinemara aspaldi ez naiz joan, azkena Tarzan izan zen, baina nire gustukoa den bat... El nombre de la rosa.

-Telebista programarik?

Periodistas.

-Gustuko aktoreren bat?

Gizonezkoa, Jack Nicholson, eta emakumezkoen artean Jodie Foster.

-Jaki goxoren bat?

Goxozale amorratua naiz.

-Zure gorputzaren atalik politena?

Garuna.

-Txikitako oroitzapenik?

Oso oroitzapen politak ditut, batez ere folklore munduaren ingurukoak. Bat bereziki, nire aitak txistua jotzen zuen eta denak, aita, ama, arreba eta laurok, jaiotzara abestera gerturatzen ginen.

-Oporrak non eta zertarko?

Edonongo kanpin batean, eta batez ere lagunekin eta semetxoekin egoteko;



izan ere, berdin zait nora joan, norekin joan hobesten baitut.

-Liburu gomendagarriren bat?

Obabakoak, eta erdaraz idatzitakoen artean Las cenizas de Angela.

-Idazleren bat?

Bernardo Atxaga.

-Munduan den denbora guztia izanez gero, zer edo nora edo zertarako?

Dantzak ikasteko, baita nire lagunekin ardo batzuk edateko ere.

-Gasteizen biziko ez bazina, non?

Ez dakit zeren inoiz ez dut horrelakorik planteatu, niri oso polita iruditzen baitzait gure hira. Gasteizekin maiteminduta nago.

-Gasteizek duen onena?

Hiria den arren, bizitzeko leku polita oso, eta gainera eroso.

-Duen txarrena?

Ez dakit, beharbada pixka bat handitzen ari zaigula eta hori igartzen dela.

-Euskaraz bizi daiteke Gasteizen?

JON Fdz. Pz. de MENDIGUREN

1962ko apirilaren 21ean jaio zen Gasteizen. Egun ezkontuta dago eta Beñat eta Markel, 7 eta 2 urte hurrenez hurren, bere semetxoak diren aita da. San Martin auzoan bizi da.

Magisteritzako ikasketak bukatu zituenean, orain dela 15 urte, Lazkaora joan zen bere euskara hobetzera. Ondoren, urte batez Eskolapios Ikastetxean eta zazpi urtez basetxe eskola batean irakasle izan zen.

Jonek 7 urterekin jada euskal folklorearen mundua ezagutzen zuen, bere aita txistularia zen heinean usadioz datorkio zaletasuna. Indarra Dantza Taldean hasi zen umetxo talde bat eramaten, gero helduen taldearen irakasle izatera pasa zen. Orain, berriz, Udal Folklore Akademiako dantza irakaslea da, "zorte handia dut betidanik hobbytzat izan dudana nire bizimodua delako".

Jonek onartzen du lanean nahiz eguneroko bizitzan nahikoa burugogorra dela: "Sinesten dudana edonoren aurrean defendatzen dut, eta horrekin ez dut esan nahi arrazoia dudarik... Gehienetan beharbada erratuta nago".

Bai, bizi daiteke.

Batzuetan oztopo batzuk

daude, baina oztopo hauek gehienbat euskaldunen barruan egoten dira, hala nola, instituzioetan publikoaren aurrean norbait jartzeko orduan euskara osagarri bat besterik ez da... Nik Frantzia aldean bulego bat sortzen badut lehenengo eta behin frantsesa dakienari emango diot lana, eta ez bat hartu eta gero ikas dezala.

-Zer nahiko zenuke jendeak esatea zu hil eta gero?

Lagun jator bat nintzela.

-Zein duzu momentuko kezkarik handiena?

Nire umetxoaren taldeak audizioan ondo dantzatzea.

-Gustuko koloreren bat?

Arrosa.

-Musika talderik gustukoena?

Pila bat dago, adibidez, aitzinako talde oso gustukoa, Errobi, baina guztien artean hoberena Benito Lertxundi.

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

**Xabier
taberna**

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



Inaxio Eizagirre joan zaigu

Edozein pertsonaz ari garela, gehienetan ogibide edo lanbide zehatz eta bakar batekin identifikatzeko joera izaten dugu: hau irakaslea, hori postaria, beste hura arrantzalea ... Eta Inaxioz? Zer esan daiteke Inaxioz?

Askok eta askok Inaxio IRALE-n ezagutu izan dugu, erakunde honen sorrera-sorreratik bertan irakasleei euskara irakasten aritu izan baita. Zer esanik ez horixe izan dela bere bizitzako ihardunik luzeena -eta ziu- rrenik, erantzukizun handienekoa ere bai-. Hala ere, berak euskara arloan egindako lan guztia IRALE-ra mugatuko bagenu, ikuspegi partziala ematen arituko ginatke. Izan ere, IRALE-n hasi aurretik, emanak zituen lehen urratsak euskara irakasten transizio garaiko urte haietan: alde batetik, eskoletan euskara ikastea borondatezko kontua zelarik, gelaz gela eta ia- ia baliabiderik gabe euskara irakasgai gisa irakasten, eta bestetik, eguneroko lan orduak bete ondoren, gau eskolan irakasleak euskalduntzen.

Honekin batera, Inaxio hobeto ezagutzen lagunduko

digun beste arlo bat ere azpimarratu nahi nuke: gizarte- konprometituta azalduko zaigun horrena. Guraso bezala eta beste guraso askoren izenean, batetik ikasto- lako elkarteetan buru-belarri lanean ihardungo du urte batzuetan zehar, eta bestetik, "Denon Eskola" elkarte- an ere, eskola publikoaren aldeko apustua eginez, bere aisialdiko ordu asko eta asko emango.

Azkenik, ezagutu dugun lekuan eta zereginetan eza- gutu dugula, ez dut uste Inaxio inon paper pasiboa betetzen egongo zenik. Bera egon den lekuan bere aho- tsa entzungo zen eta entzunarazi ere egingo zuen; horrez gain, gauzak aurrera ateratzeko grina ere naba- rituko zen. Baina, hori bai! Honetan ere ez zen geratu- ko azkena, ez zen geratuko ea lehen pausua nork eman- go zain, esku artean merezi izango zuen proiktoren bat bazegoen, bera izango baitzen lehena bere burua aur- kezten. Eta hau guztia nik ezagutu dudan gizon puska honen bizitzako atal labur bat, besterik ez da.

Jon Kortabarria.

Hau duk, hau,
esangura eta ezina.
Baina, ondotxo dakik hik,
sentimenduen esparruan,
berbak ez direla erakuslerik hoberenak;
ezen,
lausotu dituk
egunsentiaren kolore ugariak
baretu
mendi-lepoetan haize arranguratsuak;
urtu
laiotzetako izozte gordinak;
ixildu, ahitu...
ele ororen iturburuak,
...
Hementxe, hi, noraezean,
begirada galduen desbabesean,
hik hain gogoko duan Xabier Leterekin batera:
"triste eta mutu".
Baina, ondotxo dakik hik
bizi-pozak ez duela etenik,
ez oroimenak mugarik;
hortaz, ...
kanta itzak betiko baladak ozenki eta goxo!
hire aldarte onaren seinale,
eta esaiguk, konbentzi gaitzak
gauza guztien erlatibotasunaz,
baita denboraren beraren erlatibotasunaz ere.
Horrela, adiskide,
hire filosofia baikorrenekin bat eginda,
zera aldarrikatu nahi diagu:
"Gaurkoarekin egun bat gutxiago
San Ferminetarako".

Jose Ramon Arbe



INAXIORI

Gogoko huen bertsoa eta
kantua huen hain maite,
lagunarteko solas luzeetan
gozatua haiz hainbeste!
Kantuan gaudek hire izenean
nahiz eta bihotza triste,
hire ametsa, hire gogoa
kantuz nahi diagu bete!

Atzo goizean gurekin hintzen
ustekabeen joana,
hamaikotxo lan egindakoa
mila laguntza emana.
Umorez eta patxada onean
bete duk hire jarduna,
euskaldungintzan ta herrigintzan
lankide zintzo, laguna!

Hire lagunak, adiskideak
etorri gaituk honera,
gure samina ta anaitasuna
eraman nahian batera,
hik egindako bide horretan
indar berriak hartzera,
agurrik gabe, baina bihotzez
gero arte!! esatera.

Iraleko lagunak

burujabetza bidean ***abstentzioa***

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa,
Lapurdi, Nafarroa eta
Zuberoako

euskal herritarrok

Herri bat, Nazio bat,
garelako.

Herri gisa gure eskubideak
errespetatu eta aintzatesteko
exijitzen dugu.

abstentzioa
Espainiako
hauteskundeetan



Zeuk aukeratu!

LEHIAKETAK

ZALDUONDOKO
ARGAZKI-LEHIAKETA
 Zalduondoko Kultur Elkartea
 Gaia: Inauteriak
 Nahi duen orok har dezake parte;
 3 argazki gehienez
 Aurkezteko epea:
 00-3-19, 14:00 arte
 Aurkezteko tokia:
 Zalduondoko Kultur Elkartea.
 Lazarraga Jauregia 01208.
 Zalduondo -Araba
 (postaz edo bertara eramanez)
 Informazio gehiago: 945 30 43 93/
 Posta elektronikoa:
 elkarte@euskalnet.net

V. POESIA LEHIAKETA
GASTEIZKO UDAL LIBURUTEGIEN
SAREA
 Hiru maila (6-11 urte; 12-16 urte;
 17 urtetik aurrera)

Lanak aurkezteko epea/tokia:
 martxoaren 24 arte
 Udal liburutegietan

DEIALDIAK

GASTEIZKO OKUPAZIO
ASANBLADA
 ETXEZARRAREN okupazioa
 dela-eta eurekin kontaktuan
 jartzeko:
 AP. 3033. 01080-GASTEIZ

ERAKUSKETAK

ARGAZKIAK
 Javier Berasaluze
VANO INTENTO
 Araba Lurralde Historikoaren
 Agiritegian 00-3-24 arte

MARGOAK
SIMONIDES
 Gasteizko Kultura Etxean,
 00-3-31 arte

MUSIKA

TRIKIBERTSO
 Gozategi, Andoni Egaña,
 Jon Sarasua
 00-3-23. Principal Antzokian

ENEKO ESPINO
 Txistularia.
 Ez ohiko kontzertua
 Martxoak 23; 20:00etan
 BAGAREN

DANTZA GARAIKIDEA

MOARE taldea
 "MOTZ"
 00-4-1.
 Hegoale Gizarte Etxean

ANTZERKIA

HAURRENTZAKO ANTZERKIA
ZIRKO TTIPIA. Txalozirkus
 00-3-18. Ipar-Arriaga Antzokian.

geurekin mendira

AITZORROTZ- -KURTZABARRI

NOIZ: Martxoaren 19an

IRTEERA: 9:30etan, Prado
 kalean, Txapela tabernaren
 aurrean. Kotxez joango gara
 (badago lekurik)

ITZULERA: 4rak aldera

IBILBIDEA: Gatzaga mendate-
 tik abiatuta Aitzorrotz eta
 Kurtzabarri igoko ditugu
 Mendiolan bukatzeko

EDOZEIN ARGIBIDETARAKO
DEITU TELEFONO HONETA-
RA: 945 26 6812 (BEGO)

Lehiaketa

Entzun! Musika aldizkaria hilero zure etxean jaso nahi duzula?



Ba... bidali lehenbailehen galdera honen erantzuna -izena (ALDIZKA-
 RIKO ETIKETAN agertzen dena) eta telefono zenbakiarekin batera- Geu
 aldizkarira (helbidea, 4. orrialdean), Entzun! aldizkariko urte osoko
 harpidetza zozketatzen baitugu berau asmatzen duzuen artean.

Martxoko galdera:

**Euskal Herriko kantaririk adierazgarrienetako
 bat Mikel Laboa dugu... Non jaioa da?**

Otsaileko irabazlea: Aitor Ahedo Pineda • ZORIONAK! • Erantzuna: 7 notas 7 colores

*LEHIAKETAN ESKU HARTZEKO HARPIDEDUN IZATEA EZINBESTEKOA DA (ETIKETAREN IZENA ZEHATZU).

PLATÓ
 TABERNA

Zaldiaran Plaza, 10 • Tfno.: 945 22 65 64

IZ
 TABERNA
 R
 A
 JATETXEA

BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

LA RIOJANA
 jatetxea

bokatak,
 pintxoak,
 kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

IRUSTA
 TABERNA

poteo eta pintxoak
 ESPEZIALITATEA:
 Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
 Tfnoa: 945 23 19 33
 GASTEIZ

PARRAL

SAN FRANCISCO KANTOA 4 GASTEIZ
 TEL: 276833- 01001

Astaldunetik
 eduzkara
 JARRAKI
 BEGETINON

Astaldunetik
 Kantaririk
 JARRAKI
 BEGETINON

MARTXOKO ESTREINALDIAK

zinema

GURIDI

SAMANIEGO

ACUERDOS Y
DESACUERDOS (*)
(Woody Allen)EL FINAL DEL
ROMANCE (*)
(Neil Jordan)YOYES (*)
(Elena Taberna)COLGADAS
(Diane Keaton)DYMOND
(John Mallory Asher)ANY WHERE
BUT HERE
(Wayne Wang)

BESTE BATZUK:

- GIRLS INTERRUPTED
- MISS JULY
- LA NORMA DE LA CASA DE LA SIDRA (*)
- ONEGIN
- EL HOMBRE DE LA LUNA (*)
- OPERACIÓN GONABA

ADI LEHIAKETARI!!!

GURIDI ETA SAMANIEGO ZINEMEN ESKUTIK MARTXOKO ZINEMARAKO 2 SARRERA ZOZKETATZEN DITUGU ERANTZUNA ASMATZEN DUZUEN HARPIDEDUNEN ARTEAN.

Otsaileko erantzuna: Bruce Willis. Irabazlea: Gutun eta "emilio" ugari jasotzeko ALICIA LOPEZ suertatu da irabazle. Zorionak! Eta parte hartu duzuenoi, zorte on hurrengoan!

MARTXOKO GALDERA: Otsailean zehar "Emakumeak zinemagintzan" II. Zinemaldia izan da Gasteizen. Zeintzuk izan dira ziklo honetan botatako filmak?

*Erantzuna eta saridunak datorren alean BIDALI ERANTZUNA GEU ALDIZKARIRA (4. orrialdea)
...bilaren 20a baino lehen... POSTAZ EDO E-MAIL-EZ,

ZURE IRITZIA KONTUAN
HARTZEA NAHI DUZU?

Zeuk erabaki.



2000

8

MARTXOA



**HONAKO BULEGO HAUETAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK**

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa	Espainia plaza, 1	010
	Argibideak eta Erregistroa	Espainia plaza, 1	16 11 88
	Errolda	Espainia plaza, 1	16 11 06
	Funtzio Publikoa	Espainia plaza, 1	16 11 41
	Gazteen Argibide Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 30
	Idazkaritza	Espainia plaza, 1	16 13 20
	Prentsa Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 37
	Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1	16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa	Dato kalea, 11	16 16 68
	Zergen Gestioa	Dato kalea, 11	16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza	S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44
	Arkitektura	S. Prudentzio kalea, 30	16 13 01
	Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30	16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11	16 13 25
	Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11	16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde	Alberto Schommer kalea, z/g	16 18 80
	Iparralde	Zuberoa plaza, z/g	16 17 50
	Judimendi	Sefarad plaza, z/g	16 17 40
	Lakua	Etxanobetarren zidorra, z/g	17 17 81
	Aldabe	Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 33
	Biltzar eta Turismo Zerbitzua	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 61
	Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85	16 36 91
	Kirola	Gasteiz hiribidea, 85	16 15 19
	Europar Mugimenduaren E.K.	Gasteiz hiribidea, 85	16 15 57
	Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85	16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa	Agirrelanda, 8	16 14 58
	Antolakuntza	Agirrelanda, 8	16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

ZUETAKO BAKOITZAK HARPIDEDUN BAKAR 1 LORTUZ GERO... OZTOPOA GAINDITUTA!



Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ

Izena

Abizenak

Helbidea

P.K.

Herria

Herrialdea

Bankua/Kutxa

Titularra:

Kontu zk. (20 digitok)